

Sabino Aranak 1901eko bilkuran esandako hitzen oihartzunak bizirik dirau 2015ean.

Aranak egindako adierazpenean, bi alderdi aipatu zituen etengabe: batetik, ezagutza eta bestetik, erabilera. Ikertzaile eta adituen aurrean eginiko mintzaldi hura, honako hitz hauekin hasi zuen: “ez dizuet hitzaldi akademikorik irakurriko...”, baina ondoren, etengabe azpimarratu zuen ikerketaren garrantzia. Bai euskal ikertzaileek egindakoa, eta baita mundu mailako adituek egindakoa ere.

Bilkura hartan aztertu ziren gaietara eta finkatu ziren oinarrietara oso loturik dago Etxepare Euskal Institutua. Arana jaunaren hitzetan, “*Gaixorik dagoen euskara bere onera ekartzearren*” egin zen bilkura hura; euskara sendatzeko bidean jartzea zuen helburu. Eta ildo horri jarraituz, euskararen normalkuntzaren gakoetako bat, ezagutza eta erabilera sustatzea izan da; bestea, zalantzarik gabe, euskara mundu mailan ezagutaraztea; “*Euskara jalgi hadi mundura!*” Bernart Etxeparek aldarrikatu zuen hura gauzatzea, alegia.

Mende hasieran euskarari egindako diagnostikoari esker, lehenik, eta bide batez, hizkuntzaren inguruan egin beharrekoak finkatu zirelako, amestu ere egingo ez genukeen egoera batera heldu gara. Adostasuna, Arana jaunak bere hitzaldian zioenez, lan zaila zen, ezinezkoa ia, baina egin ziren urrats haiei esker jaso ahal izan ditugu ondorengo emaitzak. Euskarak urte hauetan egindako prozesu korapilatsu eta maiz oso zailari esker, aitzindari izan diren aditu eta ikertzaileei esker, eta euskararekiko konpromisoa hartu duten euskal hiztun guztiei esker, euskara, eta bere bilakaera, mundu mailan ereduizkoak dira. Euskara gainera, “*erabili beharreko hizkuntza*” bihurtu da arte, ikerketa eta kultura alorrean, eta horrek zabalkundearen bide naturala ireki du.

Egun, mundu mailan, euskarak, hizkuntza gisa, eta euskal kulturak jakin-mina pizten dute non-nahi. Eta Etxepare Euskal Institutuak gure hizkuntzaren inguruko jakin-minari erantzun nahi dio. Euskara bera du xede, gaurdainoko ibilbidea ezagutaraztea, bai eta hizkuntza hori erabiltzen duen gizarteak sortutako literatura, musika, antzerkia, zinema eta beste hainbat sorkuntza esparrutan egindako lanak munduratzea, zabaltzea eta ezagutaraztea ere. Gainera, gure zeregina haratago doa, erakuste horrek partekatzea dakarrelako, joan-etorriko bidaia, harreman sorrarazlea, alegia. Eta horrek euskararen zabalkundeari balio erantsia ematen dio.

Etxepare Euskal Institutuaren helburua maila akademikoan, euskara eta euskal kulturarekiko jakin-mina piztu eta elikatzea da. Ikerketak sustatu eta goi mailako unibertsitate horietan euskal ikasketa eta ikerketarako guneak sortzea. Ahalegin horretan ari da munduko zenbait unibertsitateekin sinatutako

EUSKARA PLAZAN ETA MUNDUAN

AIZPEA GOENAGA

ETXEPARE INSTITUTUAREN ZUZENDARI NAGUSIA

lankidetzak hitzarmenei esker, 2014-2015 ikasturtean 27 irakurlek osatzen dute Institutuaren sarea, 17 herrialdetan dauden 34 unibertsitatetan. Gainera, goi mailako sei unibertsitatetan euskara eta euskal kultura lantzeko sei katedra ditugu, eta euskal ikasketei buruzko irakaskuntza espezializatua eskaintzen dugu, graduondo mailakoa. Katedra horiek euskal gaien gaineko ikerketa akademikoak sustatzeko tresna baliotsuak dira.

Gure hizkuntzak mundu mailan ikerketa beharrezko duen bezala, gure herriko sorkuntza eta horren inguruan garatzen den industria ezagutzera ematea ere ezinbestekoa du. Herri baten kultura zabaltzea, herri hori ezagutzera emateko giltza da, eta sortzaile horiek barreiatu dute munduan zehar gure izena eta izana. Horregatik, sortzaile eta egileen lanak munduratzeko laguntzen dugu, eta beharrezko dituzten zubi-lanak egiteko, jaialdi, azoka eta goi mailako ekimenetan parte hartzen dugu. Modu horretan, munduko erakundeekin eta eragileekin elkarlanerako akordio bidez, gure hizkuntza eta kultura erakutsiz eta zabalduz, harremanak sortuz eta zubiak eraikituz. Euskaraz egiten den literatura, musika, zinema, artea, antzerkia... euskararen egungo bizitasunaren seinale dira, mugitzen ari den munduarekin harremanetan baitaude.

Bizitasun hori, gainera, zabaltzeko eta komunikatu behar da. Horregatik, Etxepare Euskal Institutuentzat oso garrantzitsuak dira argitalpenak eta baita sareetan aktibo izatea ere, euskal kulturak munduan duen presentziari buruzko berriak partekatu ahal izateko.

Sabinoren hitzen mende bat geroago euskara mundu zabalean da, ikertzaileen ahotan ez ezik, euskal artista eta egileen eskuetan ere bai. Euskara munduan barrena entzuten da euskal zinemaren bidez, baita musika edo antzerkiaren eskutik ere. Horrek gure hizkuntzari zor zaion dimentsioa ematen dio.

Duela mende bat bilkura hura gertatu izan ez balitz, eta garai hartan egindako diagnostiko ziur eta ahalegin sendorik gabe, seguruenik euskara ez legoke gaur egun ez unibertsitatean, ez komunikazio bideetan, ezta beste hamaika esparrutan ere, are gutxiago Oscar sariaren bidean. Ehun urte geroago, euskararen aldeko ahalegin askoren artean, Etxepare Euskal Institutua sortzea bultzatu zuen Eusko Jaur-laritzak, estrategia garbi batekin: euskara eta euskal kultura munduan barrena goi mailako eremuetan

erakustea eta partekatzea. Geroz eta zabalagoa den munduan euskarak etorkizunean garatzeko behar duen tresna da Institutua. Ikertzaile, egile edota eragileek euskara eramango dute soinean. Aranak bere hitzaldian zioen bezala “gu ez gara etorri handikoak, gehiago nabarmentzen gara ekintzetan”. Horregatik, ekinaren ekinez mundu globalizatu honetan, euskarak ere aniztasunaren aldarrikapena egin behar du, euskara erabiliz egin behar dugu, eta mundu zabal horretan euskarak eta euskal kulturak berea den lekua eskuratu. Horretan ari gara sutsu.

Sabinoren hitzen mende bat geroago euskara mundu zabalean da, ikertzaileen ahotan ez ezik, euskal artista eta egileen eskuetan ere bai. Euskara munduan barrena entzuten da euskal zinemaren bidez, baita musika edo antzerkiaren eskutik ere. Horrek gure hizkuntzari zor zaion dimentsioa ematen dio